


Merkatu-zerbitzuen sektoreko salmentak % 5,4 igo dira Euskal AEn 2023ko hirugarren hiruhilekoan

2023ko lehen hiru hiruhilekoetako metatua, salmentak % 7,3 igo dira

Eustaten datuen arabera, 2023ko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEko *Beste merkatu-zerbitzu batzuen* sektoreko salmentek % 5,4ko igoera izan dute aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta egutegi-eraginak kendu ondoren. Sektore horretan, *Garraioa, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak* eta *Enpresentzako zerbitzu-jarduerak* sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta urtaro-eraginak kendu ondoren, salmenten igoera % 0,1era iritsi da 2023ko hirugarren hiruhilekoan.

Merkataritzako indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Beste merkatu-zerbitzu batzuk sektorearen barruan, salmenta errealean urtetik urterako bilakaera positiboa (prezio konstanteetan) honako sektore hauetan gertatu da: *Garraioa eta biltegiatzea* (% 13,9ko igoera), *Informazioa eta komunikazioak* (% 5,5eko igoera) eta *Ostalaritza* (% 1,8ko igoera). *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* eta *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* sektoreetan, berriz, salmentek behera egin dute (% 4,5 eta % 1,1, hurrenez hurren).

2023ko hirugarren hiruhilekoa urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, salmentetan emaitza negatiboa izan duten sektoreak honako hauek izan dira: *Ostalaritza* (% 1,8ko jaitsiera), *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak* (% 1,2ko jaitsiera), eta *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* (% 0,4ko jaitsiera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta). *Informazioa eta komunikazioak* eta *Garraioa eta biltegiatzea* sektoreetan, berriz, salmentek gora egin dute (% 2,1 eta % 1,2, hurrenez hurren), prezio konstanteetan eta dagozkien urtaro-eraginak kendu ondoren.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Beste merkatu zerbitzu batzuk. Behin-behineko datuak. 2023/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	5,4	0,1	7,3
Garraioa eta biltegiatzea	13,9	1,2	16,5
Ostalaritza	1,8	-1,8	3,3
Informazioa eta komunikazioak	5,5	2,1	4,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-1,1	-0,4	0,4
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-4,5	-1,2	-0,7
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	4,9	-0,9	8,6
Bizkaia	3,5	0,3	4,0
Gipuzkoa	9,3	0,2	13,0
ENPLEGUA	1,8	0,2	1,0

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Azaroaren 16a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Lurralde historikoak kontuan hartuta ikus daitekeenez, salmentek urtetik urterako % 9,3ko igoera izan dute Gipuzkoan, % 4,9koa Araban eta % 3,5ekoa Bizkaian.

Euskal AEn zerbitzu horietan guztietan enplegatutako langileen indizeak % 1,8ko aldakuntza positiboa izan du 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, igoera % 0,1ekoa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea **% 94,7ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62